

-

Nélida Zaitegi, Presidentea
Xabier Aizpurua
Josean Bueno
Ana Marta Iriarte
Juan Carlos Jauregui
Javier Laiseca
Mari Tere Ojanguren
Mikel Pagola
Ismael Redondo
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

17/11 IRIZPENA

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2017ko urriaren 17ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: ikasleak ikasturtea hasita dagoela onartzeko eta eskolatzeko prozedura arautzen duen Dekretu proiektua, hezkuntza-arloko eskumena duen sailaren mendeko Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan, zehazki, honako ikasketa hauek ematen dituztenetan: Haur Hezkuntza, Derri-gorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Oinarrizko, Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketa.

I.- AURREKARIAK

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak ezartzen du oinarrizko zein arau aplikatu behar diren ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartzeko, eta ezartzen du Hezkuntza arloko Administrazioen zeregina dela onarpen prozedura eta irizpideak arautzea, ezarritako lehentasunezko irizpideak errespetatuz.

Bestalde, Euskal Eskola Publikoari buruzko otsailaren 19ko 1/1993 Legeak bere 13. artikuluan bermatzen du ikastetxeetan ikasteko eskubidea, aurrez ezarritako plangintzaren baitan. Legeak adierazten du, halaber, arau bidez ezarritako dela ikasleak onartzeko bidea ikastetxeetan plaza nahikorik ez dagoenean, inongo diskriminaziorik egin gabe ez araudian ez eta ikasleak onartzeko jardunbidean ere.

Gainera, Familiei Laguntzeko abenduaren 12ko 13/2008 Legearen 19. artikuluan, neurri espezifikoak ezartzen dira familiei laguntzeko hezkuntzaren arloan. Kontuan hartu beharra dago familia ugariak lehentasuna izango dutela ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxe pribatuetan onartuak izateko sistemaren puntuaketan. Orobat, terrorismo-ekintzak jasan dituzten familiek eta genero-indarkeria jasan duten familiek ere lehentasuna izango dute onarpen-sistemako puntuaketan.

Bestalde, Haurrak eta nerabeak babesteko sistema aldatzen duen uztailaren 28ko 26/2015 Legeak, azken xedapenetatik seigarrenean, aldatu egiten du Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 84. artikuluko 2. atala. Aldaketa horren bidez, irizpide berri bat txertatzen da onarpen-prozesuaren barruan: familia-harreran dauden ikasleen egoera.

Martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuak ikasleak onartzeko prozedura arautzen du Euskal Autonomia Erkidegoko ikastetxe publikoetan eta itunpeko pribatuetan, zehazki, irakaskuntza hauek ematen dituztenetan: Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa eta Erdi-mailako eta Goi-mailako Lanbide Heziketa.

II.- EDUKIA

Dekretu proiektu honek 5 kapitulutuan banatutako 26 artikulua, 3 xedapen gehigarri, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Eranskin bat ere badu.

Oinarri Orokorrei buruzko I. kapituluak (1-6 artikulua) bermatzen du ikasle guztiak eskolaratuko direla, ezartzen du debekatuta daudela irizpide baztertzailak eta probak, ikasleen Hezkuntzako Identifikazio Agiria sortzen du, eta ezartzen du derrigorrezkoa dela hezkuntza proiektuari buruzko informazioa ematea eta onarpen prozesua aplikatzea.

Ikastetxeen atxikipenari eta eregin-eremuei buruzko II. kapituluak (7-9 artikulua) ikastetxeen atxikipenerako irizpide orokorrak ezartzen ditu eta atxikitako ikastetxeetan onartzeko lehentasunak zehazten ditu, bai eta eragin-eremuak mugatzeko prozedura.

Prozedurari buruzko III. kapituluak (10-21 artikulua) ezartzen ditu deialdiaren ezaugarriak, eskaerak, egutegia eta baita ere dio prozedura doakoa dela; orobat zehazten ditu prozeduraren fase desberdinetako organo eskudunak, Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeak, zerrendak (behin-behinekoak eta behin betikoak) eta plazarik lortu ez duten ikasleentzako plaza esleipenak; eta, azkenik, zehazten du errekurtsioak jartzeko eta erantzukizunak esleitzeko aukera, eta hezkuntza laguntza jasotzeko behar espezifikoak dituzten eta hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleen eskolatzea.

Onartzeko prozesu arruntetik kanpo ikasleak eskolatzeari buruzko IV. kapituluak (22-24 artikulua) dio zeintzuk diren onartzeko prozesu arruntetik kanpo ikasleak eskolatzeko salbuespen-egoerak, zein den eskolatzeko prozedura eta zehazten du zeintzuk diren Eskolatzeko-batzordeen funtzioak.

Aplikazio-irizpideei buruzko V. kapituluak (25-26 artikulua) irizpideak arautzen ditu, eta bereizi egiten ditu, batetik, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko ikastetxeetan aplikatu daitezkeenak eta, bestetik, erdi- eta goi-mailako prestakuntza zikloak ematen dituzten ikastetxeetan aplikatu daitezkeenak.

Lehen Xedapen Gehigarria itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuei buruzkoa da. Bigarrena, irakaskuntza artistikoak, hizkuntzak eta kirol ikasketak eskaintzen dituzten zentroeiei buruzkoa, zeintzuek araudi espezifikoak izango baitute. Eta hirugarrena, itunpekoak ez diren ikastetxe pribatuei eta atzerriko zentroeiei buruzkoa.

Xedapen Indargabetzaileak bertan behera uzten du martxoaren 4ko 35/2008 Dekretua.

Azken Xedapenak esaten du noiz sartuko den indarrean dekretua.

III. – BALORAZIOAK ETA PROPOSAMENAK

1. Alderdi orokorrak

Kontseiluaren txostenetan agerian geratu da nolako desberdintasunak dauden sareen artean maila sozio-ekonomikoan eta kulturean, eta behin eta berriz adierazi da neurri zehatzak hartu behar direla, beste eragile sozial batzuekin koordinaturik, ikastetxe batzuetako eta besteetako ikasleen maila sozialak eragindako desberdintasunak konpentsatzeko.

Azken urteotan hainbat kolektibok salatu dute egoera hori, herri batzuetan besteetan baino larriagoa dena, eta konponbideak eskatu dituzte. Helburua da ikastetxe jakin batzuk ez daitezela geto bihurtu, maila sozio-ekonomiko baxua duten edo egoera txarrean bizi diren ikasle kopuru handia hartzeagatik.

Kultura-arteko eskola inklusiboan ikasle etorkinei hezkuntza-arreta emateko II. Planak (2016) ikasle horien egoera aztertzen du, eta ekintza-ildoak eta adierazleak proposatu ditu arazo horri ikuspegi desberdinetatik heltzeko. Azpimarratu nahi dugu, ikasle etorkinei arreta emateko planaren barnean sartzen diren arren, proposatzen diren ekintza-ildoak ez zaizkiela ikasle etorkinei bakarrik aplikatzen.

Eskuartearen dugun gaia, Onarpen dekretuaren berrikuspena, 1. ardatz estrategikoaren barnean sartzen da (*Erakundeen konpromisoa ekitatearekin*), 1.1 helburuaren barruan (*Araudia garatzen jarraitzea ikasle guztiak aukera berdintasunean eskolatu daitezzen*).

Plan horretan justifikatzen da dekretu berri bat behar dela, aukera berdintasuna eragotzi dezaketen elementuak zuzentzeko batik bat onarpen-baremoan; era berean, proposatzen da oinarritzko araudi bat egitea Eskolatze-Batzordeentzat eta horrelako batzorde bat sortzea derrigorrez lurralde bakoitzean.

Azkenik, eta eskuartean dugun dekretuaren eremukoak ez diren arren, ikasle etorkinei arreta emateko Planean badaude matrikulazio prozesuan zuzeneko eragina duten hainbat adierazle, eta ez dakigu dagoeneko martxan jarri diren ala ez (1.3, 2, 1, 2.2 2,3, 3.1, 3.2 helburuak).

Adibide gisa, hona hemen aipagarrienak:

- Irizpideak ezartzea eskola-eremuka ikasle etorkinak esleitzeko.
- Epez kanpo iritsitako ikasleak eskolatzeko jarraitu beharreko prozedura.
- Lurralde-bulego iraukorrak sortzea informazioa eta orientazioa emateko.
- Matrikulazio-prozesuetarako ekintza protokoloa berrikustea.
- Ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako plazen plangintza orekatua egitea eskola eragin-eremu bakoitzean.

Kontseiluak informazioa eskatzen du jakiteko zein gauzatze-mailatan dauden proposatutako neurriak eta zein neurritaraino betetzen diren adierazleak.

2. Dekretu proiektuko artikuluei eginiko ekarpen zehatzak:

Jarraian jasota daude arauak dakartzan nobedade garrantzitsuenak eta Kontseiluak horiei buruz eginiko balorazioak eta proposamenak:

➤ 1. kapitulua: Oinarri orokorrak:

- Oinarrizko Lanbide Heziketa barne hartzen da eta Haur Hezkuntzan, berriz, hirugarren mailatik aurrerako irakaskuntzak bakarrik sartzen dira.
- Ikasle bakoitzari zenbaki bat ematen zaio, Hezkuntzako Identifikazio Agiria (HIA), bakarra, pertsonala eta besterenezina izango dena, unibertsitatez kanpoko ibilbide akademiko osoan.

Kontseiluak oso positiboki baloratu du ekimen hori, horrela bermatzen delako ikasle bakoitza identifikatuko dela eskolako bizitza osoan zehar.

- 2.1 artikulua: artikulua honek dio ikasle guztiek dutela doako ikaspostu bat izateko eskubidea, irakaskuntzaren honako etapa hauetan prestakuntza bermatuko diona: Haur Hezkuntzako 2. zikloan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn.

Kontseiluak proposatzen du Oinarrizko Lanbide Heziketa ere multzo horretan sartzea, 16 urte baino gutxiagoko salbuespen kasuetarako, ikasle horiek derri-gorrezko hezkuntzakoak direlako.

- 5. artikuluan 2. atal bat erantsi da, honako hau dioena: diru publikoarekin sostengatzen diren ikastetxeek behar diren prozedurak ezarriko dituzte onarpen-prozesuan parte hartzen dutenei oinarrizko informazioa emateko betebeharra konplitzen dela bermatzeko, bai prozesua hasi aurretik, bai matrikula gauzatzeko unean.

Kontseiluak uste du zehaztu egin behar dela nori dagokion prozedurak arautzea eta betetzen direla kontrolatzea.

Bestalde, "oinarrizko informazioa emateko betebeharra..." hitzekin batera, proposatzen da hauxe gehitzea: gardentasun eta publizitate betebeharrak.

Azkenik, Kontseiluak uste du atal honetan aipatu egin beharko liratekeela ikasle etorkinei arreta emateko Planean aipatzen diren familiei informazioa emateko bulego iraunkorrak.

➤ 2. kapitulua: Ikastetxeen atxikipena eta eragin-eremuak

- 9.4 eta 7.4 artikuluek diote Hezkuntzako sailburuordeak gaitasuna izango duela lurralde historiko bateko lurralde-eremua gainditzen duten eragin-eremuak edo eremu mugakideak ezartzeko, ikastetxeren batean ematen diren irakaskuntzak oso bereziak direnean edo bestelako salbuespen-egoerak tarteko.
- 9. artikuluan 5. atal bat erantsi da, ezartzeko Lanbide Heziketako irakaskuntzen kasuan, eragin-eremu bakarra egongo dela eta Euskal Autonomia Erkidego osoa hartuko duela, irakaskuntza horien eskaintzak dituen ezaugarri bereziengatik.

Oinarrizko LHri dagokionez, berau arautzen duen 86/2015 Dekretuak bere 17. artikuluan ezartzen ditu onartzeko irizpideak. Bestalde, ikasleak Oinarrizko Lanbide Heziketako prestakuntza zikloetan eta Erdi-mailako eta Goi-mailako graduetan onartzeari buruzko 25. artikulua dio indarreko edo garapen-faseko araudiko irizpideetara jo beharra dagoela.

Dekretu proiektuaren memorian azaldu bezala, hemendik gutxira Errege Dekretu bat argitaratuko da, Lanbide Heziketako Prestakuntza Zikloen sarrera, onarpen, eskaintza eta matrikulazioari buruzko oinarrizko araua izango dena. Beraz, une horretan integratuko dira Dekretu honetan hark ezarritako irizpideak.

➤ 3. kapitulua. Prozedura

- 8. art.: Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeen osaera eta erregulazioa Agindu batean zehaztuko dira, eta ez du zertan izan onarpen prozesua arautzen duen Aginduan. Beraz, baliteke lehenago argitaratzea.

- Indarrean dagoen dekretuan Onarpen-prozesuaren Berme Batzordeei esleitutako funtzioetako bat ezabatzen da: *c) Hezkuntzako lurralde-ordezkariei aholku eman, ikasleak zein ikastetxetan eskolatu erabakitzeko, ikasle horiek eskatutako lehenengo ikastetxean plazarik lortzen ez badute. Erabaki hori hartzeko, hutsik geratutako plazei erreparatuko zaie, eta, posible bada, eskatzaileek egindako bigarren eta hirugarren aukerak errespetatu behar dira.*

Kapitulu hau prozedurari buruzkoa den arren, ez indarrean dagoen Dekretuan, ezta proiektu honetan ere, ez da azaltzen nola egiten den ikastetxeen esleipena, urteko agindu baten bidez arautzen baita.

Gaur arte Kontseiluak ez du agindu hori jaso, beraz, gogoeta egin nahi dugu erabilitako prozedurari buruz. Demagun eskatzaileak ez duela lortzen plazarik lehen aukera gisa hautatu duen zentroan, orduan bakarrik lortuko du plaza bigarren edo hirugarren ikastetxean, baldin plaza hutsak badaude azken horietan, nahiz eta bertan onartutako ikasleek puntuazio baxuagoa izan.

Uste dugu egungo sistema informatikoen bidez posible dela prozeduraren bat diseinatzea plazen esleipena eskuratutako puntuaketaren arabera egiteko, eskaera edozein posiziotan iritsita ere, adibidez, unibertsitatera sartzeko prozedurarekin gertatzen den bezala.

Kontseiluak proposatzen du aipatu bezala berrikus dadila prozedura garapen-aginduan.

- 14. artikulua dio Hezkuntza Sailak eskumena duela, ezarritako plangintzaren arabera, ikastetxe bakoitzak onartu ditzakeen gehienezko ikasle eta talde kopurua zehazteko, baita itunpeko ikastetxeen kasuan ere.

Memorian justifikatuta dago aldaketa hori; itunpeko ikastetxe pribatuak ere diru publikoarekin finantzatzen direnez, baliabide publiko horiek behar bezala erabiltzeko, taldeen eskaintzak eta talde horietako gehienezko ikasle kopuruak bat etorri behar du Hezkuntza Sailaren plangintzarekin, irakaskuntza, maila eta modalitate bakoitzean dagoen eskaerari aurre egiteko.

Ikastetxe sarearen antolamendurako eta plangintzarako irizpideak ezartzen dituen 21/2009 Dekretuak hainbat zuzentarau ematen ditu hezkuntza arloko eskaintzaren

plangintza integrala egiteko (bere baitan hartuz ikastetxe publikoak eta itunpeko ikastetxeak), baina ez dakigu plangintza hori gauzatu den ala ez.

Horregatik, Kontseiluaren iritziz aldaketa hori positiboa da, eta espero du hartuko direla berau garatzeko neurriak.

Plangintzari dagokionez, Dekretu honen esparruarekin lotura zuzenik ez duen arren, eskatzen dugu bete dadila arau horretan ezarritakoa, eragin-eremu berberak ezar daitezten ikastetxe publikoentzat eta itunpeko ikastetxeentzat.

Bestalde, proposatzen dugu esplizituki aitortu dadila familiek beren seme-alabak ikastetxe publiko batean matrikulatzeko duten eskubidea.

- 18. artikuluan aipatzen da plaza bat eman dakiela halakorik eskuratu ez duten ikasleei, eta esaten da Hezkuntza Sailaren Lurralde Delegatuek hartu beharreko neurriak hartuko dituztela, ezarritako prozedurari jarraiki, Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta DBHn plaza bat eskaintzeko.

23. artikulua kasuan bezala, proposatzen dugu hauxe gehitzea: “ezarritako prozeduran gurasoen iritzia entzungo da...”.

- 20. artikulua: artikulua berri bat erantsi da hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleak eskolatzeko plazak erreserbatzeari buruz. Hala ere, mantendu egin da 21. artikulua, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen eskolatzeari buruzkoa.

Hezkuntzako premia bereziak dituzten ikasleak ere hezkuntza-laguntza jasotzeko premia espezifikoak dituzten ikasleak dira eta kontzeptu horretan sartzen dira ikasle hauek guztiak: ikaskuntzako zailtasunak dituztenak, gaitasun intelektual handikoak, berandu eskolatutakoak, baldintza pertsonal, historia pertsonal edo eskolako historia bereziak dituztenak, eta desberdintasun sozialeko egoeran dauden ikasleak. Eranskinan jasota dago horrelako ikasleen datuak ematen dituen taula bat, 2013-15 Txostenean argitaratu zena.

Gaur arte ez zegoen ezarrita horrelako ikasleei plaza erreserbatu behar zitzaizkionik.

Artikuluan zehazten da ahalegina egingo dela horrelako ikasleak modu orekatsuan banatzeko funts publikoekin sostengatzen diren ikastetxe guztien artean, hobeto integratu daitezten hezkuntza-sisteman.

Uste dugu argitu egin behar dela artikulua honen edukia, ez baitago zehaztuta zein ikasleak eta zein baldintzatan parte hartuko duten onarpen-prozesuan.

Nolanahi ere, Kontseiluak uste du ikasle horiek ez dutela onarpen-baldintza berezirik izan behar.

➤ **IV. kapitulua. Ikasleak eskolatzea onartzeko prozesu arruntetik kanpo.**

- Dekretu proiektuak nobedade garrantzitsu bat dakar ikasturtea hasi ondoren egin behar diren eskolatzeko prozesuetarako: eskatzaileen nahia ez da erabakigarria ikasle bat zein ikastetxetan eskolatuko den zehazteko; erabaki hori Eskolatzeko Lurralde Batzordeek hartuko dute.

22. artikulua barne hartzen dituen kasuen artean, berandu eskolatutako ikasleez eta ikastetxez aldatzen direnez gain, baita ere aipatzen dira onartzeko prozesu arrunta bukatu ondoren Haur Hezkuntzako eta Derrigorrezko Hezkuntzako 2. zikloan plaza-rik gabe geratu diren ikasleak.

Uste dugu argitu egin behar dela zein ikasleri buruz ari den artikulua hori, 18. artikuluan aipatzen direnak diren ala beste batzuk, hau da, onartzeko prozesuan parte hartu ez duten ikasleak.

- 23.2 artikulua: artikulua horrek dio %10 handitu ahal izango dela ikasgelako gehienezko ikasle kopurua, hezkuntza-sisteman ikasturtea hasi ondoren sartzen diren ikasleak eskolatzeko. Hala ere, 236/2015 Dekretuaren 20. artikulua dio Oinarrizko Hezkuntzaren Euskal Curriculumean aukera ematen dela zenbait ikasgelatan gehienezko muga hori gaitzetzeko, eta horrela, hezkuntza-sisteman berandu sartu diren edo **mailaz igo ez diren** ikasleak barne hartzeko”.

Kontseiluak Dekretu hari buruz egin zuen Irizpenean eztabaida handia sortu zen neurri horri buruz, mailaz igo ez diren ikasleak kontuan har baitaitezke aurreko ikasturtetik, ez direlako bat-batean sortutako premia bat; eskola-atzerapena duten ikasleak dira, arreta individualizatuagoa behar dutenak, eta oso zaila da arreta hori ematea ezarritako ratio orokorra gaitzitzen duen ikasgela batean, ez badago hezkuntza-laguntza emateko langilerik.

Horregatik, Kontseilua ados dago proposamenaren idazkerarekin, eta harekiko koherentzia mantenduz, proposatzen du xedapen gehigarri gisa sar dadila 236/2015 Dekretuaren atal horren aldaketa.

- 24. artikulua. Eskolatzeko Batzordeak: 2017ko martxoaren 2ko Ebazpenak zehazten du nola osatuta dauden, zein funtzio dituzten eta zeintzuk diren antolakuntza eta funtzionamendu arauak. Uste dugu Ebazpenaren idazkera proiektu honetako baina hobea dela zenbait kasutan, esaterako, funtzioak azaltzean. Era berean, us-

te dugu garrantzitsua dela, Ebazpenak jasotzen duen bezala, Dekretu honetan ere hau sartzea: batzordeak **“eskolatze inklusiboaren printzipioari jarraitu behar dio”**.

Ebazpenean jasota dauden irizpideei dagokienez (III. eranskina), uste dugu ez dutela Dekretuan agertu behar, baina publikoak eta ahalik eta objektiboenak izan behar dutela.

➤ **Eranskina: Irizpideak eta Baremoa**

Baremoan aldaketa hauek egin dira aurreko dekretuarekin alderatuta:

- Baremoaren A atalean (famili-unitatearen urteko errenta) famili-unitatearen diru-sarrerengatik ematen den puntuaketa aldatu da: egun indarrean dagoen Dekretuak 1,5 puntu aurreikusten ditu, proiektu honek berriz 0,5. Bestalde, gehienezko puntuaketa 3 puntutik 1,5era jaitsi da.

Proiektu hau baino lehen, famili-unitatearen urteko errentaren irizpidea aldatu zen ikasleak onartzeko 2017ko Aginduan, puntuaketa eskuratzeko behar den gutxieneko errenta-maila murriztuz. Agindu hori ez zen bidali Kontseilura horri buruzko manuzko txostena egin zezan.

- Baremoan atal berri bat sartu da ikasle eskatzailea harrera-egoeran dagoen kasurako, eta puntu 1 emango zaio.

- Ikastetxeko bazkide kooperatibistari 0,5 puntu emango zaizkio (lehenago puntu 1 zen), eta ikastetxeko ordezkari organo gorenak edo eskola kontseiluak kontuan hartzeko moduko egoerengatik eman daitezkeen puntuak ere 2tik 1era murriztu dira.

Kontseiluak positibotzat jo du kasu horietako puntuaketa murriztea, ulertzen dutelako ez dutela erabakigarri izan behar plaza bat eskuratzeko orduan.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2017ko urriaren 18a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

LEHENDAKARIA

Sin.: NÉLIDA ZAITEGI DE MIGUEL

HEZKUNTZA SAILBURU ANDREA

I. Eranskina

Hezkuntza-laguntzaren berariazko premia duten ikasle kopuruaren bilakaera 2013-14 eta 2014-15 ikasturteetan,

	2013-2014	2014-2015	Azken ikas- turteko Δ
HPBko ikasleak guztira	6.386	6.960	% 9,0
Hizkuntza eta komunikazioaren nahasteak comunica-	1.290	1.442	% 11,8
Ikasteko berariazko zailtasunak	1.019	1.292	% 26,8
Heltzeko moteltasuna	1.123	1.243	% 10,7
AGHA	787	928	% 17,9
Mugako adimen gaitasuna	2.782	3.165	% 13,8
Adimen gaitasun handia	306	379	% 23,9
Tipologietan sailkatu gabeak	625	667	% 6,7
HLBPko ikasleak guztira	7.932	9.116	% 14,9
Definitu gabeak	532	585	% 10,0
Ikasleak guztira	14.850	16.661	% 12,19

II. Eranskina

Ebazpena, 2017ko martxoaren 2koa, zeinaren bidez zehazten baita zein izango diren Eskolatze Batzordeen osaera, funtzioak eta antolaketa- eta funtzionamendu-arauak.

Erabaki hori hartzeko, familiak espresuki eskatutakoaz gain, Batzordeak EAEko hezkuntza-sisteman modu inklusiboan eskolatzeko printzipioari jarraituko dio eta, zehazki, honako irizpide hauei:

- Ikastetxea familiaren etxetik hurbil egotea.
- Ikastetxean eskolatutako anai-arrebak izatea, ahal bada anai-arrebak ez bereizteko.
- Prozesu honen bidez anai-arreba bat baino gehiago eskolatzea eskatzen bada, erabakiak bateratua izan behar du, ahal bada.
- Funts publikoekin finantzatzen diren ikastetxe guztietan, eskolatzea inklusiboa eta orekatua izango da eskola eragin-eremu guztietan, hau da, eremu bakoitzeko ikasleen aniztasunaren erakusgarria.
- Ahal dela, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak D edo B eredua eskaintzen duten ikastetxeetan eskolatuko dira.

- Oinarrizko Hezkuntzaren bigarren ziklotik aurrera hasten diren ikasleen kasuan, beste faktore batzuk hartuko dira kontuan, hala nola adina, aurretiko eskolatzeara edo hizkuntza-kompetentzia.
- Eskolatzeara egiten bada familia-unitateak etxez aldatu behar duelako – gurasoek edo legezko tutoreek nahitaz mugitu behar izatearen edo genero-indarkeriagatik egoitzaz aldatzearen ondorioz–, eskatzailea eskolatuko da, lehentasunez, gurasoen edo legezko tutoreen etxebizitza edo lanaren eragin-eremuan daukan ikastetxe batean.
- Gela berean, ez dira eskolatuko Eskolatzeara Bidez eskolatutako bi ikasle baino gehiago, betiere beste aukera batzuk badaude ikastetxearen eragin-eremuan edo harekin muga egiten dutenetan; halakoetan, ikastetxearen eta etxearen arteko distantzia bi kilometrokoa izango da, gehienez ere.